

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mari Lurdes Aranburu Mendizabal

*Beizama,
Gipuzkoa
(1931)*

Aurkibidea



Biografia



Zortzi senidetan zaharrena, Beizamako Ostatuberri etxean jaio zen 1931. urtean. Aita, Gabirian jaioa, Beizamako praktikantea izan zen eta hortik datorkio Mari Lurdesi medikuntzarako zaletasuna. Donostian egin zituen ikasketak eta Valentzian lortu zuen emagin titulua. 21 urterekin etorri zen Zumarragara emagin bezala lan egitera. Egunean bost erditze ere izan zituen, 60. hamarkadako garapen industrialak Zumarragako biztanle kopurua asko ugartu zuenean izan zen hau. Azpeitiar batekin ezkondua, hiru seme-alaba izan zituen.

Zintak

BEI-021

- **Proiektua:** Urretxu eta Zumarragako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun
- **Data:** 2013-11-19
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxazarra, Ainhoa

Pasarteak

1. Maisu-maistrak eta apaiz bi Beizaman

- **Erref:** BEI-021/003
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:02:22. **Bukatu:** 00:03:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Beizama herri txikia zen, baina euren eskola zeukaten. Don Jose Agirre zen maisua, Itsasokoa, eta bere emaztea maistra. Orduan ume asko zeuden eta neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren eskolan. Bi apaiz zeuden herrian.</p>

Transkripzioa

- Eta han zeuen Beizaman, herri txikiya zan, baiño, bueno, gendukun gure eskola, "la señorita Jovita" ta bere gizona zan maixue "de Ezkioga-Itsaso", Don Jose Agirre. Eta hantxe edukau giñen gu, guk hantxe ikasi gendun. Bi apaiz urte haietan...

- Irakasle moduan?

- E?

- Irakasle bezela edo ez? bi apaiz?

- Bi apaiz, herriyen bi apaiz.

- Hori gauza haundia zan e.

- Beizama, nik ez dakit ba ze, ze habitante eukiko zitun. Karo, familiyak zien numerosas: gu zortzi, este... "el maestro ese y la maestra Jovita de Zaldibia y él de Ezkioga-Itsaso" hoiyek'e beste zazpi. "Eran familias... éramos familias numerosas". E? Ta neskak gendukun gure eskola eta mutillek zeuken bere eskola.

2. Aita baserriz baserri jendea atenditzen

- **Erref:** BEI-021/005
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:04:22. **Bukatu:** 00:07:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Hamahiru urtera arte egon zen eskolan. Gizarte Segurantzaren jarri zutenean, aita Azpeitira bidali zuten langileei kontsulta pasatzera. Honez gain, baserriz baserri ibiltzen zen jendea atenditzen, oinez. Gaixo zeudenak Tolosara bidaltzen zituen.</p>

Transkripzioa

- Eskolan ze urte, zenbat urte arte?

- Hamahiru urte arte.

- Hamahiru urte arte.

- Bai, eon nitzen ni han ta nere senidek'e bai. Gero ya nere aitte handik jetsi Azpeitira, "ya había seguridad social" fabrika Agirre, Damaso-Azkue eta zeuen obrero asko, eta ordun aittek pasatzen zun konsulta bat Azpeitin ta etortzen zien "los obreros", uain anbulatorioa juten dien bezela. Eguardiyen, en general, ordubaten eo, hamabiyetan ertetzen zuen, ta ordubete hori izeten zan, ba, indiziok jarri, "hacer curas"... Hori zan aitten lana. Ta aitte ibiltzen zan baserritik baserrira. Halako baserritik hots eitten ziyen, "ba aittona ez dau ondo", ta aitte jun itten zan, ta beak diagnostikatu behar zun, beak. Beantzako baiño gehiyo balin bazan ya bialtzen... Tolosaa o bestela Donostira, pero en general Tolosaa.

- Bialtzen zon gaixo zeona.

- Bai, gaixo zeona ospitalea o "la clínica de San Miguel en aquellos años".

- Nola ibiltzen zan aitte batetik bestea?

- Aitte? Oiñez. Eta gero bizikleta bat. Baiño bestela dana oiñez. Ta gendukun txakur bat, Pintto, ta txakur hure etortzen zanen etxea, ba, igual etxen eongo zan abiso bat halako baserrira juteko, ta amak, ba "pasau ta etxoin hamen belaxe etorriko da". Don Jose hots eitten ziyen gure aittei. Eta txakurra azaltzen zan aurrena, Pintto, ta txakur hura azaltzen zanen,

amak esaten zion han zain zeonai: "badator".

- Txakurre aurretik zekarren.

- Txakurre etorri da ta lau miñutura o lehen aitte azaltzen zan. Eta han zeona, pues, abisue, o halako miñek dauzke, o eroi in da, o "lo que sea", gaixo baten... kalentura haundikin dao... Eta berriro juten zan aitte hori, billa etorri zan gizon horrekin beste baserri batea. Porke Azpeitik zeuzken baserri asko; Urrestillan "ni te quiero decir, porque la zona de Urrestilla, Aratz-erreka, Nuarbe"... barriyo hori ezautzen al dezu? E? Pues baserri hoiek danataa aitte ibiltzen zan, urte haiyetan. Aizu, eta hango jendek fede haundiye zun. Ez nere aitte zalako, baiño...

- Ona zan, praktikante ona zan.

- Praktikante ona zan ta urte haiyetan, pues, danatatik in behar izaten zuen.

3. Aitari laguntzen

- **Erref:** BEI-021/006
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:07:24. **Bukatu:** 00:08:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Botikak Azpeitiko botikatik ekartzen zituen aita. Injekzioak hiru ordurik hiru ordura jarri behar izaten ziren eta Mari Lurdesek laguntzen zion aitari lan horretan, hamabost bat urte zituela. Hor hasi zen bere bokazioa.</p>

Transkripzioa

- Botikak-eta ibiltzen zittun edo gehiau zan senda-belarrak...?

- Botikak-eta farmazitik. Azpeitin farmazi bat bazeuen ta zenbat aldiz juten giñen farmazi hortaa halako tokirako, halako esto. Bai, bai, bai, bai. Nik ikasi nun penicilina, extrectomicina... ba, urte haietan hiru ordutik hiru ordua jartzen zien "esas indicciones, no?". Eta aitte ez zeuken juteik hiru urtetik... hiru ordutik hiru ordura, ta ni juten nintzen baserri hoietaa, ta hortxe hasi zan nere bokaziyue. Ikasi nun indiziyo hoiek jartzen, eta aitte jun berrin hiru ordutik hiru ordua ni geatzen nitzen baserrin.

- Zenbat urtekin hori?

- Ba, aizua, hamalau? hamabost?

4. Emagin ikasketak Donostian

- **Erref:** BEI-021/008
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:09:54. **Bukatu:** 00:11:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Batxilerra amaitu zuenean emagin izateko ikasketak egin zituen Donostian. "Revalida" delakoa Valladoliden egin zuen. Lehen, ikasketa bako emakumeak

ibiltzen ziren emagin. Donostian egon zenean osaberenean egiten zuen lo. Ikasketak amaitu ondoren, Valentziara joan behar izan zuen titulua ateratzera.

5. Zumarragara emagin

- **Erref:** BEI-021/010
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:13:37. **Bukatu:** 00:14:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Hogeita bat urte zituela Zumarragara etorri zen emagin. Modista batekin hasi zen bizitzen, urte betez. Ezkondu eta hiru seme-alaba eduki zituen.

6. Gau eta egun emagin lanetan

- **Erref:** BEI-021/011
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:14:34. **Bukatu:** 00:15:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Egun edo gaueko edozein momentutan etortzen zitzaizkion ate joka erditzeren bat zegoela eta. Mari Lurdes emakumea ikustera joaten zen jarraian.

7. Hasierako esplorazioak

- **Erref:** BEI-021/012
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:15:47. **Bukatu:** 00:18:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Emagin botikina erakusten du. Lehenengo egiten zuena esploratzea izaten zen, umea buruz edo ipurdiz zetorren jakiteko. Estetoskopoarekin umea nola zegoen entzuten zuen. Txarto baldin bazegoen, berak laguntzen zien Donostiara emakumeei. Umea asko atzeratzen bazen injekzioa ematen zion Mari Lurdesek amari.

8. Plazenta lurperatu

- **Erref:** BEI-021/014
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:19:49. **Bukatu:** 00:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Plazenta lurperatu egiten zuten baserrietan. Emakumeak ez bazuen plazenta osorik kanporatzen, Donostiara edo Beasainera bialtzen zuen Mari Lurdesek. Plazentaren zatiren bat ez kanporatzeak hemorragia dakar.

9. Haurdun zeudenei kontsulta hilero hilero

- **Erref:** BEI-021/016
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:22:59. **Bukatu:** 00:23:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Hilero hilero haurdun zeudenei bisita egiten zien Mari Lurdesek: tentsioa hartu, analisiak, umearen posizioa behatu... Arazorik zegoela ikusiz gero, Tolosako mediku batengana bidaltzen zituen emakumeak.

10. Ingurukoak emakumeari laguntzen

- **Erref:** BEI-021/020
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:28:38. **Bukatu:** 00:30:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Gizonak beti egoten ziren erditzeetan laguntzen. Askotan etxeko amama ere bertan izaten zen edo bizilaguna. Emakumeek ohean egiten zuten umea. Umea pixka bat itota jaiotzen bazen, ur berotan eta hotzetan sartzen zuen Mari Lurdesek.

11. Lehenengo erditzea

- **Erref:** BEI-021/022
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:33:07. **Bukatu:** 00:33:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Emagin hasi zen lehenengo hilabeteen lau erditze baino ez zituen eduki. Lehenengo erditzea gogoratzen du: berrogei urte inguruko emakume bat zen. Herriko medikuak lagundu zion lehenengo erditze hartan.

12. Bost erditze egun bakar batean

- **Erref:** BEI-021/024
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:35:25. **Bukatu:** 00:36:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Egun bakar batean bost erditze eduki zituen.

13. Hasieran bizikletaz

- **Erref:** BEI-021/025
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:36:27. **Bukatu:** 00:38:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak

Laburpena:

Hasieran bizikletaz mugitzen zen etxe batetik bestera. Gero, motozikleta bat erosi zuen eta azkenean kotxea. Lehen ez zegoen biderik eta dena oinez egin behar izaten zuten. Gauez taxi-gidariak eramaten zuen.

14. Umea bainatu eta jantzi

- **Erref:** BEI-021/027
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:40:30. **Bukatu:** 00:42:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Umea jaio ondoren, Mari Lurdesek berak lotzen zion zila. Ondoren, masaje moduko batzuk ematen zizkion amari plazenta kanporatzeko. Umea ere berak bainatzen zuen eta baita jantzi ere. Umeari jartzen zizkieten jantziak azaltzen ditu.

15. Hogeita lau ordura bularrean jarri

- **Erref:** BEI-021/028
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:42:21. **Bukatu:** 00:42:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Lehenengo hogeita lau orduetan ur pixka bat eskaintzen zioten jaioberriari. Hogeita lau ordu pasatu eta gero, bularrean jartzen zuten umea. Orain jaio eta segituan jartzen dute bularrean.

16. Umea jaio ondoko zaintzak

- **Erref:** BEI-021/030
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:43:53. **Bukatu:** 00:45:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Umea jaio eta gero, egunero joaten zen Mari Lurdes amarengana, umearen zila erori arte. Umeari kurak egiten zizkion eta ama garbitu egiten zuen. Bularrarekin ere arazoak edukitzen zituzten zenbaitek.

17. Kanpoko jendea lanera herrira

- **Erref:** BEI-021/036
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:56:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Zumarragara jende asko etorri zen kanpotik: Andaluzia, Zamora, Extremadura... Hauek logelak alokatzen zituzten. Bizilagun baten etxean, logela batean, lau gizonek egiten zuten lo. Urte haietan lan asko zegoen Zumarragan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com